

h) Udalai ere eskatuko zaie: basetxetako euskal-izenak eusteko.

11. Maipuruak *Afijos vascos* bere lan edera irakuri du. Ta beste erizkizun batzuk bigaramonerako utzi-ta, otoitzez amaitu da batzaraldi au.

---

**Donosti'n, Gipuzkoa'ko Aldundi-Jauregian, 1923'ko Ilbeltza'ren 26'an.**

Len aipatu diran euskaltzain jaunak batzaraldira datoz. Azkue maipuruak oiturazko otoitza egin du.

1. Auruko batzaraldian izendatu dan batzordeak auxe daxe: Aita Oyeregi'ren asmoak ezin auferatu ditezkelá, oraingoz beintzat. Euskal-Gurasoen Baltzua osatzen danean, asmo oiek egibide geyago izan dezakete ta orduarte gai onen erabakia laga da.

2. Urte ontan, 1923 ga'renean, Euskaltzaindiari dagokio *Euskalegunak* gertu ta eragitea. *Euskalegun* abek Napa'roan izango dirala erabaki da, bañan oraindik ez da eririk autu. Ur'engo batzaraldian aukeratuko da ta euskalegunetan zer egin ditekenén aburua euskaltzain bakoitzak bekar.

3. Azkue jaunak bere lana *Afijos vascos* irakuri du ta baitare irakurtzez amaitu. Irakuri duen txanda guzitan, euskaltzañak zeritzazkiten oar'ak egin dizkiote ta egoki ziranak egileak bere lanean ezari ere bai. Euskaltzaindiaren lengo aburuz EUSKERA aldizkarian lan eder au azalduko zan, bañan luze-xama'ra

ta mamitsua dalako liburu berezi batean guzia, sail batez, argitaratzea erabaki da.

4. Bahr jaunaz itz egin da, Schuchardt-lan guzien itzulpena berangandik nai litzake. Asi diteke: *Sara'ko euskera* ta gero *Baskischen* deitzen diran lanetatik.

Ta besterik izan ez da, otoitzez amaitu da batzaraldi au.

---

### Donosti'n, Gipuzkoa'ko Aldundi-Jauregian, 1923' ko Otsailaren 27'an.

Batzaraldira euskaltzain abek datoz: Azkue maipuru, Kanpion, Urkijo, Lakonbe, Landeñetxe, Intza, Altube, Olabide, Intzagarai ta urgazleri batez.

Oiturazko otoitzez asi da batzaraldia.

1. Azkue jaunak irakuñi du. Euskaltzaindiaren izenean, Kardenal Vico'ri zuzendu zitzaion idazkia. Idazki onen erantzupena badu, ta auxe ere irakuñi da. Tedeschini Nuntzio jauna arazo ontan bitarteko dabil, ta Azkue jaunak dasa, onen idazkirik ez dala oraindik artu. Erabaki da: Arazo ontan Euskaltzaindiak eta Eusko-lkaskuntzak batera jo bear dute ta oñetarako Eusko-lkaskuntzarekin izketa bat izatea on litzake.

2. Kristau-ikasbidez edo dotriñaz euskaltzañak luzaro itz egin dute. Urkijo jaunak adierazi digu XVI-garñen mendean ze gai ta zer ařeta artzen zuten Euskaleriako Gotzaiak *Kristau-ikasbideak* argitaratzen ta eren eliztarñen artean zabaltzen. Urkijo jaunak antziñako idazkietan ikusi duenaz, urtero argitaratzen ziran dotriñak ta bere aburuz, euskalki nagusietan